

HERRIZAINGO SAILA**4217**

331/1993 DEKRETUA, abenduaren 14ko, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegia aldatzen duena.

Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legearen 53. atalak aldaketa nabarmena ezarri du Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegian; izan ere, Euskal Herriko Polizia osatzen duten Kidegoren bateko heziketa-ikastaroak ez gainditzeak, izangaia berez eta besterik gabe, aukeraketa-bidetik kanpo uztea eta horrek dagokion eskala edo kategoriara sartzeko izan zezakeen eskubide oro galtzea gerta ez daitezen arrazoia mugatu egiten ditu.

Hori dela eta, 1982ko otsailaren 22ko Aginduz (apirilaren 1eko EHAA, 44 zenbakiduna) onartutako eta 1990eko otsailaren 12ko Aginduz (otsailaren 19ko EHAA, 36 zenbakiduna) aldatutako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegia aldatu beharra dago, Euskal Herriko Poliziari buruzko uztailaren 17ko 4/1992 Legean ezarritakora egokitzen.

Ondorioz, Herrizaingo sailburuaren proposamenez, eta Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Zuzendaritza Batzordearen iritzia entzun ondoren eta Jaurlaritza Kontseiluak 1993ko abenduaren 14an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

Lehenengo atala. – 1982ko otsailaren 22ko Aginduz (aprilaren 1eko EHAA, 44 zenbakiduna) onartutako eta 1990ko otsailaren 12ko Aginduz (otsailaren 19ko EHAA, 36 zenbakiduna) aldatutako Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegiaren 18. atala aldatzen da. Hona zer jasoko duen aurrerantzean:

«18. atala. – 1. Aukeraketa-ikastaro batean zehar, ikastaroko iharduketa guztien seiren batera edo gehiagotara ez joateak, ikastaroa galtzea dakar eta izangaia aukeraketa-bidetik kanpo uztea eta dagokion eskala edo kategoriara sartzeko izan zezakeen eskubide oro galtzea.

2. Halere, ezinbestekoren bat gertatzen denean, ikastaroa galtzeak ez du esan nahiko izangaia aukeraketa-bidetik kanpo gelditzen denik; ezinbestekoa izango da aurrikusi eta ekidin edo jarki ezinezko gertaera oro. Beti ere ezinbestekotasuna dela ulertuko da, lanerako aldinbaterako ezintasuna dela eta, izangaia lanera joan ezinik dagoenean. Eta hori, gaixotasun edo istripuagatik baja-agiri bidez egiaztatu beharko du.

3. Ezinbestekotasuna dagoen, Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko zuzendariak erabakiko du, izangaiak hori dagoela erabaki dezala eskatu beharko diolarik aurrez. Eskaera horri ematen dion erantzuna baiezkoa bada, ikasgaiek hurrengo egiten den ikastaroan parte hartzeko aukera izango dute, joateko ezintasuna desgertu ondoren.»

DEPARTAMENTO DE INTERIOR**4217**

DECRETO 331/1993, de 14 de diciembre, por el que se modifica el Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco.

El artículo 53 de la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco, ha introducido una modificación sustancial en la regulación contenida en el Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco en el sentido de limitar las causas cuya concurrencia puede obviar que la no superación del correspondiente curso de formación conlleve la automática exclusión del aspirante del proceso selectivo para el ingreso en la correspondiente escala o categoría de alguno de los Cuerpos que integran la Policía del País Vasco.

Ello hace preciso modificar el Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco, aprobado por Orden de 22 de febrero de 1982 (B.O.P.V. n.º 44 del 1 de abril) y modificado por Orden de 12 de febrero de 1990 (B.O.P.V. n.º 36, de 19 de febrero), para adecuarlo a lo dispuesto en la Ley 4/1992, de 17 de julio, de Policía del País Vasco.

En su virtud, a propuesta del Consejero de Interior, oído el Consejo Rector de la Academia de Policía del País Vasco y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión del día 14 de diciembre de 1993,

DISPONGO:

Artículo primero. – Se modifica el artículo 18 del Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco aprobado por Orden de 22 de febrero de 1982 (B.O.P.V. n.º 44 del 1 de abril) modificada por Orden de 12 de febrero de 1990 (B.O.P.V. n.º 36, de 19 de febrero), que queda redactado como sigue:

«Artículo 18. – 1. La falta de asistencia al curso selectivo correspondiente, por tiempo que implique la pérdida de más de una sexta parte del total de las actividades escolares, supondrá la pérdida del mismo y la automática exclusión del aspirante del proceso selectivo, así como la pérdida de cuantos derechos pudieran asistirle para su ingreso en la correspondiente escala o categoría.

2. No obstante, la pérdida del curso no supondrá la exclusión del aspirante del proceso selectivo, cuando concurra causa de fuerza mayor, entendida ésta como hecho imprevisible e inevitable o irresistible. Se entenderá, en todo caso, que existe fuerza mayor cuando la inasistencia sea consecuencia de una incapacidad laboral transitoria del aspirante justificada en el correspondiente parte de baja por enfermedad o accidente.

3. La existencia de fuerza mayor deberá ser apreciada por el Director de la Academia de Policía del País Vasco, previa solicitud de declaración de existencia de la misma por el aspirante. Caso de ser resuelta favorablemente la solicitud, los alumnos podrán repetir curso en el primero que se celebre, una vez desaparecida la circunstancia impeditiva.»

Bigarren atala.- Euskal Herriko Poliziaren Ikastegiko Barne Arautegiaren 30. atala eduki gabe uzten da.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren bihamarenean hartuko du indarra.

Vitoria-Gasteizen, 1993ko abenduak 14.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Herrizaingo sailburua,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

Artículo segundo.- Queda sin contenido el artículo 30 del Reglamento de Régimen Interior de la Academia de Policía del País Vasco.

DISPOSICION FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 14 de diciembre de 1993.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.
El Consejero de Interior,
JUAN MARIA ATUTXA MENDIOLA.

Iragarpenak

Obra, Zerbitzu eta Horniduren Enkanteak eta Lehiaketak

OSASUN SAILA (Osakidetza)

4218

LEHIAKETA PUBLIKOA, «Gurutzetako ospitalerako garbiketa eta desinfekziorako zerbitzua» kontratazko dena.

Espediente zenbakia: 220/20/1/00183/3602/1293 T.A.

Kontratuaren xedea: «Gurutzetako ospitalerako garbiketa eta desinfekziorako zerbitzua»

Lizitaziorako aurrekontua: 1.187.000.000 PTA.

Bulegoak: administrazio klausula partikularren pleguaren karatula, oinarri-arau teknikoen plegua eta lehiatzaleentzat interesgarri izan daitezkeen gainerako agiriak beren eskuragarri daude, Servicio Vasco de Salud/Osakidetzako egoitza nagusian (Araba kalea, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz), 9:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 17:00etara.

Sailkapena: «III taldea, 6 azpitaldea eta D kategoria»ri dagokion sailkapena egiaztatu behar izango dute lehiatzaleek.

Eskaintza eredu: administrazio klausula partikularren pleguaren 1-A eraskin legez ageri dena.

Aurkezteko epea eta lekua: Servicio Vasco de Salud/Osakidetzako egoitza nagusian (Araba kalea, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz), 1994ko urtarrilaren 27ko 12:00ak baino lehen.

Jendaurreko agertarazpena: Kontratuaren Araute-

Subastas y Concursos de Obras, Servicios y Suministros

DEPARTAMENTO DE SANIDAD (Servicio Vasco de Salud)

4218

CONCURSO PUBLICO para la contratar la asistencia de «Servicio de limpieza y desinfección para el Hospital de Cruces».

Expediente N.º: 220/20/1/00183/3602/1293 T.A.

Objeto del Contrato: «Servicio de limpieza y desinfección para el Hospital de Cruces.»

Presupuesto de licitación: 1.187.000.000 PTA.

Dependencias: La carátula del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, el de Bases Técnicas y demás documentación de interés para los licitadores se encuentra a su disposición en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza - Sede Central - c/ Alava, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz de 9:00 a 13:00 horas y de 15:00 a 17:00.

Clasificación: Los licitadores deberán acreditar la siguiente clasificación: Grupo III Subgrupo 6 Categoría D.

Modelo de Proposición: El que figura como Anexo 1-A para concurso público del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares.

Plazo y lugar de presentación: Las proposiciones deberán presentarse en el Servicio Vasco de Salud/Osakidetza - Sede Central - C/ Alava, 5 - 01006 Vitoria-Gasteiz antes de las 12:00 horas del día 27 de enero de 1994.

Apertura pública: La apertura pública de proposicio-